



# Territorios vivos: servicios de proximidad que transforman el medio rural



De la planificación estratégica a la implementación efectiva: diseño y activación de servicios de proximidad innovadores y sostenibles para fortalecer la cohesión y el futuro del medio rural en Euskadi.

**Eka. 25 2026**

**Kod. E03-26**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2026

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Eka. 25 2026

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



Fundación  
BBVA



# Azalpena

Euskadiko landa-inguruak Europako beste landa-lurralde batzuekin hainbat erronka partekatzen ditu, hala nola biztanleriaren zahartzea, oinarrizko kalitatezko zerbitzuen bermatzea, gazteak erakartzea edo jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea. Hala ere, baditu berezko ezaugarriak ere, aurrean dituen erronkak eta eman daitezkeen erantzunak baldintzatzen dituztenak. Maila anitzeko gobernantza sendoa, lurralde-plangintza aurreratua (7/2022 Legea, PDT, PCDR), hiri-inguruneekiko hurbiltasuna, komunitate-identitate sendoa eta egitura sozioekonomiko dibertsifikatua dira ezaugarri horietako batzuk.

Testuinguru horretan, hurbileko zerbitzuak tresna estrategiko gisa kokatzen dira landa-inguruan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, eta, horren bidez, herrialdearen kohesio sozial eta lurraldekoa indartzeko.

Ikastaroak ibilbide bat proposatzen du, lehenik arau- eta estrategia-esparru horretatik abiatuta, ondoren landa-lurralde ezberdinetan garatutako esperientzia berritzaileetara hurbiltzeko, bizi-kalitatearekin eta kohesio sozialarekin lotutako esparruetan, hala nola zaintzak, mugikortasuna, etxez etxeko oinarrizko zerbitzuak, tokiko merkataritza, digitalizazioa, etxebizitza edo landa-gazteriaren aktibazioa eta errotzea.

Ekimen bakoitza bere gobernantza- eta finantzaketa-eredua kontuan hartuta aztertuko da, baita bere eragin sozial, ekonomiko eta lurraldekoaren ebaluazioa ere. Ikuspegi horrek aukera emango du ikaskuntza esanguratsu eta transferigarriak identifikatzeko, Euskal landa-ingurunearen errealitate espezifikora egokituz.

## Helburuak

Helburu orokorra:

Hurbileko zerbitzuak tresna estrategiko gisa sustatzea, landa-eremuak bizirik, kohesionatuak eta etorkizunekoak izan daitezen, sortzen den eraginaren ebaluazioa eta neurketa kontuan hartuta.

Helburu espezifikokoak:

Hurbileko zerbitzuak Euskadiko arau- eta estrategia-esparruan kokatzea (7/2022 Legea, PDT, PCDR, *Rural Proofing*).

Landa-lurralde ezberdinetan garatutako esperientzia berritzaileak ezagutzea, haien arrakasta-gakoak eta zailtasunak aztertuz, eta ikaskuntza transferigarriak sortuz, Euskal landa-errealitatean aplikagarriak izan daitezen.

Ekimenek duten benetako eragina nola neurtzen den ulertzea (adierazle sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak eta lurralde-kohesioari lotutakoak).

## Lankidetzatza



# Programa

**2026-06-25**

08:45 - 09:00 Erregistroa

---

09:00 - 09:20 Bienvenida y apertura institucional del curso

---

09:20 - 09:45 Presentación del curso y marco para el Desarrollo Rural en Euskadi

---

10:45 - 11:15 Experiencias inspiradoras (I)

---

11:15 - 11:45 Kafe atsedena

---

11:45 - 12:45 Experiencias inspiradoras (II)

---

13:30 - 13:45 Aprendizajes y claves para el futuro

---

13:45 - 14:00 **Cierre**

---

## Zuzendaritza



### **Joseba Andoni Terreros Luengas**

---

Director de Desarrollo Rural y Políticas Europeas del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritza

# Matrikula prezioak

**AURREZ AURRE**

**2026-06-25 ARTE**

|                                  |       |
|----------------------------------|-------|
| <a href="#">Matrikula doan</a>   | 0 EUR |
| <a href="#">Donostia Kultura</a> | 0 EUR |

**ONLINE ZUZENEAN**

**2026-06-25 ARTE**

|                                  |       |
|----------------------------------|-------|
| <a href="#">Matrikula doan</a>   | 0 EUR |
| <a href="#">Donostia Kultura</a> | 0 EUR |

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa